

## ZERU ZURI-URDINA

Amonak motxila prestatu, argazki bat sartu eta muxu handi bat ematen dio bilobari, autobusera igo aurretik.

—Ondo ibili txangoan, Ainhoa! —dio amonak.

—Eskerrik asko, amona! —erantzuten du bilobak.

Ainhoa lasterka doa lagun-taldea pilotuta dagoen lekura, autobusaren aurreko atearen ondoan. Ikasturte amaierako ibilaldia da. Ainhoa urruntzen den bitartean, amonak ozenki esaten dio:

—Ainhoa, gogoan izan motxilan sartu dizudan argazkia, zuri-beltzean dago, bertan ikusiko duzu gaur bisitatuko duzuen baserria, gure arbasoen egoitza eta lantokia!

—Bale, amona! —erantzuten du Ainhoak azkar, ikaskideen agur beroa jaso aurretik.

Autobus gidariak atea ireki, motorra piztu eta barrura sartzeko keinua egiten du. Andereño eta maisuek laguntzen diete ikasleei ibilgailuaren sarrerako eskailerak igotzen. Haurrak binaka jartzen dira autobusaren eserlekuetan. Uxue lagunaren ondoan eseri da Ainhoa. Bidaian zehar, herria utzi, industrialdea igaro eta kolore berdea nagusitzen den paisaiatz gozatzeko aukera du. Lantegi, asfalto eta zementuak kolore grisez inguratzen dute eguneroko bidea. Oraingoan, ordea, kolore-sorta berria du begien aurrean eta horrek zirrara berezia sortzen dio. Begirada gorantz altxatzen du eta eguzkia nagusi ikusten du zeru zuri-urdinean, lagunarekin hitz eta pitz ari den bitartean.

—Ainhoa, amonak argazkia motxilan sartu dizula entzun dut —hasten da Uxue.

—Bai, zuri-beltzean omen dago, Uxue —esaten dio Ainhoak.

—Erakutsiko al didazu, Ainhoa? —jarraitzen du Uxuek.

—Nola ez, ba? —erantzuten du Ainhoak, motxilaren kremlera ireki eta suabe-suabe gutun-azaletik ateratzen duela argazkia.

—Hara! Aurrez aurre dugun baserria da —esaten du Uxuek leihotik begiratzen duen bitartean.

—Arrazoi duzu. Hori bai, argazkiari koloreak falta zaizkio —gehiagotzen du Ainhoak.

Hain zuzen ere, ailegatu dira Igartubeiti baserrira. Autobusa aparkalekuan geratuta dago bidaiariak jaisten diren bitartean.

Laino zuri batek itzala ematen du eta beroa zertxobait arintzen du. Ardurandun bat gerturatzen da eta laguntzen du talde osoa eraikinaren aurreko aldera eta baratze txiki baten inguruan bi hitz esaten ditu era atseginean.

Jarraian, baserrian sartzen dira guztiak. Egurrezko egitura, usaina eta sagardo dolare itzelak haurren jakin-mina pizten du. Arduradunari galderak egiten dizkiote etengabe eta honek fin erantzuten du.

—Garai batean itsas-gizon eta -emakumukeek kupeletan eraman omen zuten sagardoa Amerikara, eskorbuto gaixotasuna ekiditeko —adierazten du azalpenak ematen ari den arduradunak.

Sukaldea eta ikuilua bisitatzeko dituzte denek elkarrekin. Pausoak ematerakoan ganbarak sentsazio berezia sortzen die haur eta helduei, zurezko zoruak kraska egiten baitu. Kanpoko sargoria baserriaren barruan ez da nabari, horma sendoek freskotasun puntu bat ematen dute eta.

Bazkalordua iritsi eta kanpoko aldean taldeka mokadu bat jateko aukera dute. Zuhaitzen gerizpean jaten dute etxetik ekarri dituzten ogitarteko, edari eta abar. Uxue eta Ainhoa taldetxo berean daude.

—Ez duzu ezer esaten —botatzen dio Uxuek Ainhoari.

—Egia esan, zertxobait hunkituta nago —erantzuten dio Ainhoak Uxuei.

—Zer dela eta? —galdetzen du Uxuek.

—Nire arbasoak hemen bizi eta lan egin zutela pentsatzen ari nintzen —erantzuten du Ainhoak.

—Nire asabak Extremadura eta Andaluziakoak ziren —dio Uxuek.

—Baserririk al dago han? —galdetzen du Ainhoak.

—Hau bezalako baserririk ez dago, baina kortijo eta landetxeak badaude —esaten du Uxuek.

—Animaliak ere zaintzen al dituzten inguru haietan? —galdetzen du Ainhoak.

—Bai, noski! Esate baterako Andaluziako txerriak oso ezagunak dira. Pentsa daiteke Jabugo urdaiazpikoan. Eta Extremaduran famatua da transhumantzia —erantzuten du Uxuek.

—Zer da hori? —galdetzen du Ainhoak.

—Urtean behin edo bitan urrutira doaz artzainak, ardiak larre ugaria dagoen lekura aldatuz —erantzuten du Uxuek.

—Gure artean ere antzeko fenomeno bat dago. Duela aste batzuk telebistan ikusi nuen Oñati inguruko artzainek artaldeak Urbiara larratzera eraman zituztela eta bertan azarora arte egongo zirela —esaten du Ainhoak.

—Ez al da bitxia gure arbasoek antzeko ogibidea zutela aspaldian eta gure gurasoak fabrika berean lanean ari direla gaurkoan? —galdetzen du Uxuek.

—Bai, horixe! —erantzuten du Ainhoak bokadiloaren azken zatia jaten duen bitartean.

—Bost minutu barru, denak aparkalekura joan zaitezte! —oihu egiten du irakasle batek. Amonaren argazkiari azken begirada bat bota ostean, Uxue, Ainhoa eta beste lagunak autobus arrosa eta berdea dagoen lekura doaz.

Itzulerako bidea gozoa da. Denek segurtasun uhala behar bezala lotu dutela konprobatu ondoren, abian jartzen dira etxerantz. Umore ona nagusi da giroan. Autobuseko atzeko aldean daudenak kantuan hasi dira:

—Sardina bat.

Eta aurrean eserita daudenek erantzuten dute abesten ere:

—Sardina bat.

Atzealdekoek, berriro:

—Bi sardina.

Aurrekoek:

—Bi sardina.

Halako batean, Ainhoa eta Uxueren gelakide batek dio garrasika:

—Behi bat.

Denek barre egiten dute. Igartubeiti eraiki zen garaian Gipuzkoako biztanle gehienak nekazaritzaz, arrantzaz eta abelzaintzaz bizi ziren, baina egun gehienek industrian edo bulegoetan lan egiten dute eta haur batzuentzat harridura sortzen du zaldi, ardi edo behi bat ikusteak. Ohitura falta.

Etxetik gertuen dagoen geltokian jaisten da Ainhoa, Uxeri besarkada estu bat eman eta gero.

—Aita! —oihu egiten du Ainhoak lurrean bi oinak jarri eta burua altxatu bezain pronto.

—Ainhoa! —esaten du aitak eta, gerturatzen denean, bi muxu ematen dizkio alabari.

—Gustura egon al zara? —galdetzen du aitak.

—Oso! —erantzuten du Ainhoak.

—Argazkian agertzen den baserria ikusi al duzue? —galdetzen dio samur-samur aitak Ainhoari gutun-azalari begira.

—Bai, baina dena koloretan ikusi dugu. Belardi berdeak, teilatu gorria, egurrezko zutabe marroiak eta zero zuri-urdina —erantzuten du Ainhoak.

—Nahiz eta agerian ez egon, zuri-beltzean baitago argazkia, egun hartan zerua zuri-urdina zegoen ere, gaurkoan bezala —gehiagotzen du aitak.

—Bihar arte! —esaten dio Uxuek Ainhoari etxerako bidea hartzen duela.

—Bihar arte! —erantzuten dio Ainhoak Uxeri.